



Ikus-entzunezko lanen 7. lehiaketa

“Dame 1 Minuto de Refugio”

OINARRIAK

UNESCO Etxea – Euskal Herriko UNESCO Zentroa nazioarteko borondatea duen euskal GKE bat da, eta joan den 25 urteotan Bakearen Kulturaren eta Giza Garapen Iraunkorraren alde ari da lanean, eskubideak eta erantzukizunak, biak, aintzat hartuko dituen kulturaren alde; pertsonak, gizarte-erakundeak, hizkuntza- eta kultura- komunitateak eta herriak aintzat harturik, hiritargo globa demokratikoa eraikitzeke lan egingo duen mundu baten alde. Horixe da, hain zuzen, UNESCOk, eratu zenean, bere gain hartutako xedea: bake bidezkoa eta duina eraikitzea, pertsona eta haren duintasuna eta balio gorenak ardatz harturik.

Guztiak berdinak garela eta eskubide eta betebeharrak berberak ditugula aldarrikatzen du **“Eman Minutu 1”** lehiaketak, eta denok defendatu behar ditugula pertsona guztien eskubideak. Inork ere ezin ditu eskubide horiek saihestu eta, hortaz, eskubideok urratzen diren tokian horiek babesteko betebeharra du.

Hauek dira UNESCO Etxearen “Dame 1 Minuto de Refugio”
Ikus-entzunezko lanen lehiaketaren

OINARRIAK

1. Hauek izango dira SARIAK, bost kategorietan:

EMAN MINUTU 1. *Kategoria nagusia eta sari gorena.*

SARIA: Nestor Basterretxearen “Estela Solidaria- Hilarri Solidarioa”.
Dokumentalaren errealizazioa finantzatuko da, guztira 5.000 euroko zenbatekoan.

Lan irabazlea epaimahai espezializatu baten^(*) irizpideen arabera aukeratuko da, lehiaketaren oinarriak betetzen baldin baditu.

EKIN ETA EGIN SARIA

SARIA: Bideo-kamera + garaikurra

Ikastetxe, gazteen kultura-elkarte eta abarrei zuzendura dago sari hau; 18 urtetik beherakoei, beti ere. Gazteek bakarka edo taldean aurkeztu ahal izango dute beren lana.

UNESCO ETXEA SARIA

SARIA: Bideo-kamera + garaikurra

Kategoria honetan irizpide hau balioetsiko da: mezua eta mezu hori zenbateraino datorren bat UNESCOk, eratu zenean, Giza Garapen Iraunkorra lortzeko bere gain hartu zuen helburuarekin.

- CEAR AIPAMENA SARIA

SARIA: Juan Genovésaren litografia bat

Asiloa lortzeko duen eskubidea hoberen babesten duen Ikus-entzunezko lana sarituko da.

- EIKEN AIPAMENA

SARIA: EIKEN- Euskadiko Ikus-entzunezkoen eta Eduki Digitalen Klusterra eta haren enpresak presente dauden eduki-merkatuetan izena ematea. Antolatzen diren hitzaldi eta ekitaldietara joateko aukera egongo da.

Euskadiko ikus-entzunezko piezarik onena sarituko da, hau da, teknika digitalen erabilera hobekien bultzatzen duena. Kalitatezko proposamena, berritzailea eta orijinala izan beharko du, aurretik saritu gabea. Halaber, aintzat hartuko da proiektua etorkizunean bideragarria izatea eta egilea 30 urtetik beherakoa izatea.

2. Ikus-entzunezko piezen “Dame 1 Minuto de Refugio” lehiaketaren helburua da errespetuan oinarritzen den eta giza eskubideak defendatzen dituen gizartea lortzen laguntzea, arreta berezia eskainiz pertsona orok aske ibiltzeko eta asiloa lortzeko duen eskubidea defendatuko duen gizarte kritiko eta solidario bat eraikitzeari.

Lanek Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren 13 eta 14 artikuluen sustatzeari, defendatzeari eta/edo eskubide hauek urraketa salatzeari buruzkoak izan behar dute.

- “Pertsona orok du joan eta etorri aske ibiltzeko eskubidea eta Estatu baten lurraldean bizi-lekua aukeratzekoa. Pertsona orok du edozein herrialdetatik alde egiteko eskubidea, baita norberetik ere, eta norbere herrialdera itzultzekoa.”


(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala; 13. artikulua)

- “Jazarpenik jasanez gero, pertsona orok du edozein herrialdetan babesa bilatu eta izateko eskubidea.”

(Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala; 14. artikulua)

Epaimahaiak alderdi hauek baloratuko ditu bereziki:


- Aske ibiltzeko eta asiloa lortzeko eskubidea defendatzen eta sustatzen duten mezuak eta irudiak.

- 
- Beren ideiak, kultura-identitatea, nazionalitatea, sexu-orientazioa eta erlijioa direla-eta, edo genero-indarkeriaren, salerosketaren edo gerren biktima izateagatik jazarpena jasaten duten pertsonen egoerak jasotzen dituzten irudiak.
 - Emigratu edo lekualdatu behar izan duten pertsonetikiko estereotipo eta gizarte-aurreiritziak haustea xede duten irudiak.
 - Desberdintasunak eta kultura-, arraza-, gizarte- eta politika-aniztasuna onartzea eta gizartean barneratzea lortu nahi duten irudiak.
 - Emigrante eta errefuxiatuek lekualdaketei aurre egiteko dituzten ahalmenak eta estrategiak agerian jartzen dituzten irudiak, baita haien eskubideak errespetatu daitezela eskatzeko balio dutenak ere, banaka nahiz taldean.
 - Gizarteak giza eskubideen urraketari aurre egingo dion eta erantzun kolektiboa behar duen mundu zuzen, ireki eta solidarioagoaren aldeko borrokan parte har dezala sustatzeko irudiak.
 - Ez da tonu, paternalista, biktimizatzaile eta sentsazionalistarik erabiliko.

3. Edoizein hizkuntzatan aurkeztu ahal izango dira lanak eta honako formatu hauetakoren batean: mov, avi, flv, mpeg, mp4. Gehienez ere minutu bateko iraupena izango dute, kreditu-tituluak kontuan hartu gabe (ez da beharrezkoa kreditu-titulu horiek sartzea).

4. Pertsona bakoitzak nahi beste ikus-entzunezko lan aurkeztu ahal izango ditu. Ikus-entzunezkoa taldean egin daiteke, baina saria pertsona bakar bati emango zaio.

5. Lanak filmatzeko telefono mugikorra, Iphonea, PDA, Webcamak, argazki-kamera edo bideo-kamera digitala erabili ahal izango dira, baina lanak aurrez



adierazitako bost formatuetako batean (mov, avi, flv, mpeg eta mp4) eta ahalik eta bereizmen handiengan aurkeztu beharko dira. Lanak egiteko edozein teknika edo postproduzio mota erabil dezakete egileek.

6. Lehiaketaren web-orriaren bidez, Lehiaketaren blogaren bidez edo UNESCO Etxearen web-orriaren bidez egin behar da izen-ematea.

7. Lau modu daude lanak guri helarazteko:

- e-postaz: dame1minutode@unescoetxea.org (10MB gehienez).
- Onedrive, Google Drive, iCloud Drive, WeTransfer edo Dropbox bidez
- Posta arruntaren bidez
- UNESCO Etxera bertaratuta (Uribitarte pasealekua 12, 2.lokala. 48001 Bilbo)


Egile bakoitzak bere gain hartuko ditu bidalketa-gastuak.

Youtube-erabilera ez da onartuko bideoen bidalketarako.

8. 2017ko Otsailaren 1ean, 23:59an bukatuko da izena emateko eta lanak bidaltzeko epea (egun horretatik aurrera bidalitako lanak ez dira lehiaketan sartuko).

9. Lanak originalak izango dira. Antolakuntzak ez du bere gain hartuko aurkeztutako lanek egile-eskubideen arloan egin ditzaketen arau-haustekak.

10. Lehiaketaren antolatzaileek eskubidea izango dute zenbait lan kanpoan uzteko. Hain zuzen, lehiaketaren gaiarekin loturarik ez duten edukiak dituztenak edo kalitatezko baldintza tekniko gutxienekoak betetzen ez dituztenak.



11. Lanen egileek lehiaketari utziko dizkiote obrak erreproduzitzeko, komunikatzeko eta jendartean banatzeko eskubideak, baina egilea nor den adierazita erabiliko dira beti ere eskubide horiek.

12. UNESCO Etxeak arlo horretan eta ikus-entzunezkoetan adituak diren pertsonak izendatuko ditu epaimahaia osatzeko. Publikoki jakinaraziko da nork osatuko duen epaimahaia.

13. Epaimahaiaren erabakia apelaezina izango da.

14. Epaimahaiak eman gabe utzi dezake sarietako bat edo sari guztiak.

15. Lehiakideek, lehiaketa honetan parte hartzean, onartu egiten dituzte hemen adierazitako oinarriak.

16. UNESCO Etxeak lan sarituak zein diren jakinaraziko die partaideei, eta lehiaketaren jarraipena egingo du web-orriaren bidez.

17. Partaide bakoitzak bere gain hartuko du Sari banaketara joateko gastuak.

18. Lehiaketari buruzko beste edozein informazioren berri jakiteko, UNESCO Etxera jo dezakezue, www.dame1minutode.org, <https://dame1minutode.wordpress.com> eta www.unescoetxea.org bisita ditzakezue edo e-mail bat bidal dezakezue helbide honetara: dame1minutode@unescoetxea.org. Lehiaketa amaitu arte, *Facebook, Twitter eta Instagram* gizarte-sareetan, “**dame1minutode**” kontuan, eguneratuko da informazio guztia.



EPAIMAHAI

JUAN CARLOS VÁZQUEZ, KCD Garapenerako GK Eren zuzendaria.

1986tik nazioarteko lankidetzan, garapenerako hezkuntzan eta sentsibilizazio sozialean lan egiten du. 16 urtetan zehar Zine Sozial baten erakusketa zuzendu zuen 4 hiritan eta EA Eren hainbat herritan. Gaur egun KCD (Kultura Communication eta Garapena) Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundea zuzentzen du, bere xedea komunikazio soziala eta kulturala garapenerako tresnak bezala sustatzea da. 'Film Sozialak' Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren sortzailea da. 2001ean eta 2006an hurrenez hurren errealizatzaile indigena bolibiarrek zuzendutako bi dokumental sortu zituen. 2005etik 2009ra Latinoamerikar Zinema Koordinatzailea eta Indigena Herrien CLACPI Komunikazioaren zuzendaritza aholkatu zuen. Hamar zinema jaialdi baino gehiagotan epaimahaiaren partaide izan da.

BEGOÑA ATIN, EITBko albistegietako zuzendariordea.

Lehenago K2000 dokumentalen sailaren arduradura izan zen. Aldi honetakoak dira honako izenburu hauek:

- 'Mujeres en construcción': euskal terrorismoaren biktima izandako hamaika emakumeen testigantza eta berreraikitze pertsonala batzen dituen dokumentala.
- 'Retratos- Erretratuak': 2000ko ET Aren biktimen ahaide eta lagunekin egindako sail dokumentala.
- 'Hil beltza': 1981eko otsailean emandako gertakizunen inguruko analisi politiko eta sozialeko dokumentala (José María Ryanen bahiketa eta hilketa, Joxe Arregiren torturak eta heriotza, otsailaren 23ko estatu kolpea, ET Aren behin betiko tregua).
- 'Saliendo del laberinto': urte bat geroago, 11M EA En nola bizi zen eta bere ondorioei buruzko analisi eta hausnarketa.

ARITZ GALARZA, produktore exekutiboa eta EITBko programatzailea.

1982an hasi zen lanean produkzio laguntzaile bezala albistegietan, handik programen produktora pasatu zen, non 2005ean beste lankide batekin 'Eitb Kultura' proiektua garatu zuen. Behin proiektua ontzat eman zutenean hark zuzenenan lan-taldeko partaideak aukeratu eta programaren produktorea eta zuzendaria izan zen. 2006an programaren produkzio exekutibora pasatu zen eta baita programazio sailera, non katez kanpoko fikziozko filmen arduraduna bihurtu zen Eitbko 3 kanaletan. Halaber, aldi honetan zehar produktore exekutiboaren lana egin zuen hainbat programetan, ala nola 'La Noche De', edo 'Tu vista de Euskal Herria', beste batzuen artean.

UNAI GARCÍA GALLASTEGUI, garapenerako lankidetzak teknikaria Getxoko Udalan.

Zientzia Politikoetan eta Soziologia Industrialean lizentziatu zen Euskal Herriko Unibertsitatean. Garapenerako Lankidetzan master bat du. 'Film Sozialak' Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren epaimahaiko partaidea izan da.

AIZPEA GOENAGA, aktoreza, idazlea, gidolaria eta Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria.

Interpretazio eta dramaturgia ikasketak egin zituen Euskadin, Madrilan eta New Yorken. 13 urterekin hasi zen lanean eta harrezkero antzezlan, telesail eta film anitzetan parte hartu du. Telesail arrakastatsuak zuzendu ditu, hala nola 'Goenkale', 'Ertzainak', 'Martin', 'Maite' eta 'La Señora Flora'. Patxi Barcoren 'Secretos de cocina' pelikula idatzi eta zuzendu du. Halaber, sari ugari jaso ditu bere aktoreza, zuzendari eta gidolari lanetatik. 2010etik Etxepare Euskal Institutuaren zuzendaria da, euskara eta euskal kultura mundo osoan zehar zabaltzea xede duen erakundea, literaturatik arte eszenikoetara.

UNAI ARANZADI, zuzendaria eta gatazka armatuetan eta Giza Eskubideetan kazetari espezializatua

Canal + katearen zinema departamentuan hasi zen bere ibilbide profesionala, Cannes, Berlin eta Rotterdameko zinema jaialdien berri ematen. 2001ean INDEPENDENT DOCS dokumental produktorea sortu zuen Estocolmon (Suetzia). Harrezkero Israel, Libia, Irak, Afganistan, Uganda, Nepal eta Kongoko gerrak bete ditu, beste askoren artean. Bolivia, India, Nicaragua, Mexiko eta Sudafrikan eta beste hainbat estatutan emandako gatazka sozial eta politikoen inguruan ere lan egin du. Bere erreportaiak mundo osoko telebistetan igortzen dira, hala nola BBC, Al Jazeera, RTVE, Canal + edota Eitb, beste batzuen artean.

ROSABEL ARGOTE, Kazetaria, Kaliforniako Unibertsitatean (Santa Bárbara) Hispaniar Zinema eta Literaturan Doktorea da. Migrazio, Atzerritartasun eta Asilo gaietan tituludun-aditua da Madrileko Carlos III. Unibertsitatean.

2003. urtetik CEAR-Euskadin (Euskadiko errefuxiatuei laguntza emateko Batzordea) lan egin du, Xenofobia eta Arrazakeria direla medio, bazterkeria eta hainbat kulturaren arteko elkar ulertzea (bizikidetzak) ardatz dituzten ikerketak eta proiektuak bateratzen dituen gobernu kanpoko erakundean. Era berean, iritzi publikoaren, zinemaren, artearen eta gizarte-eraldaketaren aurrean, giza talde txikiak (inmigrazioa, prostituzioa, emakumeak, homosexualitatea) presentzia duten filmen eta hedabideen ikerketetan parte hartzen du. Horretaz gain, Euskal Herriko Xenofobia eta Arrazakeriaren aurkako Dokumentu-zentruko MUGAK aldizkarian idazten du artikuluak gisa.

CLAUDIA EMMANUEL LAREDO, Bilbo-ko Udaletxeko Biztanleria, Lankidetzeta eta Berdintasun saileko Inmigrazio-Teknikaria.

Deustuko Unibertsitatean zuzenbidean Lizentziaduna. 2005eko maiatzetik gaur egunera arte, Bilbo-ko Udaletxeko Biztanleria, Lankidetzeta eta Berdintasun saileko Inmigrazio-Teknikaria da. Etorrinen elkarteei babesa emateko Udaletxearen programen arduraduna, kultur-arteko sentsibilizazio programena zein kultur aniztasunaren eremuko programa europearren arduradun teknikaria da, non horietan guztietan Bilboko Udaletxeak parte hartu duen (Open-Cities, Realise, Red Europea de Ciudades Interculturales....).

ALETXU ECHEVARRIA, The Blackout Project ekoiztetxearen fundatzaile eta zuzendaria, eta EIKENeko presidentea.

Grupo Godó edo Canal+ estatu eta nazioarte mailako izen handiko konpainietan (publizitate eta interaktibitate arduradun bezala) lan egin eta gero, Endemol ikus-entzunezko ekoiztetxean zuzendari digital gisa garatu zuen bere ibilbidea.

Eiken, Euskadiko eduki digitalen eta ikus-entzunezko sektoreen kluster berrituaren burua izateaz gain, marketing digitalaren edukiekin zerikusia duten Boletus, Brightvibes eta Muchomove bezalako startup-etan inbertsorea ere bada.

Fair Saturday kultur eraldaketaren aldeko herri mugimenduko patronatuaren kidea, eta Deusto Unibertsitateko Berrikuntza Masterraren eta MBA irakaslea.

Antolatzailea



Babesleak



Laguntzaileak



DATUEN BABESA.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten da partaideen datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean jasoko direla eta fitxategi hori lehiaketa hau kudeatzeko eta egoteko baino ez dela erabiliko.

UNESCO Etxeak antolatutako jardueri buruzko informazioa jasotzea eskatzen duten pertsonen datuak horretarako bestetarako ez dira erabiliko.

Eskubidea duzu fitxategian zuri buruz jasotako datuetara sartzeko, datu horiek ezeztatzeko, zuzentzeko edo horien kontra egiteko. Horretarako, eskabidea egin behar duzu info@unescoetxea.org helbide elektronikora mezu bat bidalita, 94 427 64 32 telefono zenbakira deituta edo UNESCO Etxearen egoitzara bertaratuta UNESCO Etxea. (Uribitarte, 12, 2.lokala. 48001 Bilbo).
